



# MARFILEZKO KUTXATXOA

Joan de Déu Prats

*Lurdes Auzmendiren itzulpena  
Estibalitz Jalónen marrazkiak*

Desclée De Brouwer





Obiol eta bere loroa  
piratetan jolasten ari ziren  
hiriaren erdian.

Mutikoak zurezko ezpata  
eta mapa bat zeramatzan,  
burdinazko hiru bala eta  
hiru kromoren truke Adriani  
aldatu zizkionak.



Orain, bi esploratzaile  
beldurgaberen antzera, aurrera  
egiten ari ziren tenplu indigena  
baten hondakin puskak ziruditen  
etxe laiotz eta zaharkituz  
osaturiko irla batetik.  
Mutikoaren irudimena gauza  
guztietara barreiatzen zen.

